

Geease* : EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUEN ALDE

2023-2026

** Euskal Hirigune Elkargoko Gizarte eta Ekonomia mailan
Erosketa Arduratsuen Sustapenerako Eskema*



aurkibidea

1. zatia

Erosketa arduratsuen erronka 4

2. zatia

GEEASE diseinatzea 8

3. zatia

GEEASE artikulatzea 10

Zeharkako ardatza 12

Trantsizio ekologikoaren ardatza 16

Osasunaren ardatza 20

Gizarte eta gizarte ekintzaren ardatza 24

Ekonomiaren ardatza 28

5 ardatzen sintesia 32


HIZTEGIA 34

EDITORIALA

Gaur egun, politika publiko guzietan, eskaera publikoek (lizitazioek) zeregin nagusia dute, lurraldeko ekologia- eta gizarte-trantsizioaren aldeko zeharkako palanka ekonomiko gisa.

Frantses legearen arabera, urtean 50 milioi € erosketa baino gehiago egiten duten erakunde publikoek “**Gizarte eta Ekonomia mailan Erosketa Arduratsuen Sustapenerako Eskema**” (**GEEASE**) behar dute. Gure hirigune elkargoa, bete-betean sartzen da kategoria horretan, 2022an 100 milioi baino gehiago gastatu baitzituen (hots, urteko aurrekontuaren kasik heren bat) 500dik gorako merkatu esleiturik, eta eragin handiarekin nagusiki bertako ehun ekonomikoko milaka hornitzaileen jardueran.

Horiek horrela, 2023ko irailaren 30ean Elkargoko Kontseiluak onartu zuen Euskal Elkargoaren GEEASE legezko betebeharretik harago doa. Haren xedea da lurraldeko ekologia- eta gizarte-trantsizioaren aldeko palanka anbiziokoa izatea. “**Erosketa arduratsuen**” bide-orri estrategiko horrek deialdi bidez esleitzen diren zerbitzuak segurtatu nahi ditu (finantza, juridikoa, kalitatea, jarraikitasuna), zeinek, hemendik goiti, ekologia eta gizarte baldintzak bete beharko baitituzte.

Agerikoa da Ipar Euskal Herriarentzako aurrerapauso nabarmena dela, zeren 2023ko Eskaera Publikoko Trofeoetan “Erosketa politika arduratsuen” saria eskuratu baitugu. Talde gisa dugun indarraren eta gure ekintzaren egokitasunaren froga bat gehiago da. 



Jean-René ETCHEGARAY,
Lehendakaria
Euskal Hirigune Elkargoa



Martine BISAUTA,
Lehendakari ordea
Ekologia eta Energia Trantsiziorako
eta Hirigune herritar baterako karguduna

EROSKETA ARDURATSUEN ERRONKA

ZENBAKIAK

Honakoak ziren 2022ko erosketen zenbatekoak:

**GUTXI GORABEHERA ELKARGOKO AURREKONTUAREN
HEREN BAT:**

**60 MILIOI EUROKO EROSKETAK
FUNTZIONAMENDURAKO**

(NAGUSIKI, ZERBITZU ESKAINTZAK, ERREGAIAK ETA ENERGIAK)

**80 MILIOI EUROKO EROSKETAK
INBERTSIOETARAKO**

(NAGUSIKI OBRA ETA INSTALAZIO MERKATUEN BIDEZ GAUZATUAK).

ENPRESENTZAKO 190 DEIALDI

ARGITARATU DIRA 2022AN (40 000 EUROTİK GORAKO DEIALDIAK,
ZERGAZ KANPO), HOTS:

443 MERKATU PUBLIKO

OROTARA 185 MILIOI EUROKO BOLUMEN BATENTZAT

190 DEIALDIETATİK,

18 HORNIDURA MERKATUENTZAKO ZIREN,

97 ZERBITZU ESKAINTZENTZAKO

75 OBRA PROGRAMENTZAKO

Euskal Elkargoko erosketak eta eskaera publikoa palanka esanguratsuak dira lurraldearen ekologia trantsiziorako.

LEGE-ESPARRUA

“KLIMA ETA ERRESILIENTZIA” DERITZON FRANTSES LEGEA

Frantziako “Klima eta Erresilientzia” 2021eko abuztuaren 22ko legeak, estatu bereko eskaera publikoaren (lizitazioen) kodeko L2111-3 artikulua aldatu zuen. Ondorioz, 2023ko urtarrilaren 1etik, 50 milioitik gorako erosketak dituzten erakunde publikoak behartzen ditu Gizarte eta Ekonomia mailan Erosketa Arduratsuen Sustapenerako Eskema” (GEEASE) baten plantan ezartzera.

Eskemak erakundearen erosketa politikaren helburuak zehaztu behar ditu:

- Langile elbarrituak edo lanetik urrunduak direnen gizarteratzea eta lanbideratzea;
- Ekologiarekiko begirunea;
- Garapen plangintza eta eraginkortasuna neurtzeko urteroko jarraipena.

2022-2025 EROSKETA JASANGARRIEN ALDEKO PLAN NAZIONAL (EJPN) FRANTSESA

GEEASE baten garapena 2022-2025 Erosketa Jasangarrien Plan Nazional frantsesaren 2 helburuekin bat dator (EJPN):

1. HELBURUA

Hemendik 2025era,
URTEAN BIDERATUKO DIREN
MERKATU-KONTRATUEN %100AK
GUTXIENEZ GIZARTE IRIZPIDE
BAT IZAN BEHAR DU

2. HELBURUA

Hemendik 2025era,
URTEAN BIDERATUKO DIREN
MERKATU-KONTRATUEN %30AK
GUTXIENEZ GIZARTE IRIZPIDE
BAT IZAN BEHAR DU

ARAUZKO BESTE ERREFERENTZIA ZENBAIT

Azkenik, Frantziako legebiltzarrak erosketen jasangarritasuna txertatzeko hainbat beharmendu onartu zituen orain dela zenbait urte jadanik. Honela, GEEASE lege eta arau horietan berma daiteke erakundearen erosketa arduratsuen estrategia zehazteko. Adibidetzat har ditzakegu, Frantziako AGEK (ekonomia zirkularraren aldeko ekintzak sustatu eta indartzeko) legearen 58. artikulua, EGALIM (hazkurri gaien %50 jasangarriak eta kalitatezkoak izan daitezen, eta horietatik %20 laborantza biologikokoak izan daitezen) legea edo Mugikortasunen Norabide Legea (LOM) garraioen ingurumen-aztarna murrizteko.

ELKARGOAREN ESPARRUAN

2021ean Klima Plana onartu zuenetik, Euskal Elkargoak bere estrategien eta politika publikoen muinean kokatu zuen energia- eta ekologia-trantsizioa. Eta hitzartze zabal batean, gizakien eta planetaren begirune handiagorako eta garapen eredu neurritsuagorako lurralde-trantsizioa koordinatzen du. Abiatu den planak honako arloak hunkitzen ditu: lurralde-antolaketa, bizitegiak, mugikortasunak, energia berriztagarrien garapena, laborantza eta elikadura, bertako ekoizpenak eta zirkuitu laburrak, hondakinen kudeaketa, berrikuntza eta eko-diseinua. Ondorengo egutegiak Euskal Hirigune Elkargoak 2017-2023 artean ekologia trantsiziorako hartu engaiamenduen funtsezko datak erakusten ditu.

<p>2017, URTARRILAK 1</p> <p>Euskal Hirigune Elkargoaren eratzea (Euskal Elkargoa).</p>	<p>2021, ekainak 19</p> <p>Euskal Elkargoak Lurraldeko Klima-Aire-Energia Plana onartu zuen (KAEP).</p>	<p>2023KO MARTXOOAREN 1a</p> <p>Euskal Elkargoak Energia-Trantsiziorako eta Ekologia-Plangintzarako Idazkaritza Nagusia (ETEPIN) osatu zuen, klima aldaketa mugatzeko eta hari egokitzeko, baita energia, bioaniztasun eta ekonomia zirkularraren arloetan ekintzen koordinatzeko. ETEPINen xedea da Ipar Euskal Herriko hautetsiek Klima Planaren baitan eta 2050erako hartu engaiamenduak lortzea. "Erosketa arduratsuen" unitatea osatu zen.</p>
<p>2020KO OTSAILA</p> <p>Lurraldeko Elikadura Proiektua (LEP) diseinatzen hasi da. Ekoizleak, transformatzaileak eta banatzaileak, elkarrengandik hurbiltzeko xedea du lurralde erakundeak eta kontsumitzaileak elikadura osasuntsu eta kalitatezko baten alde.</p>	<p>2022, UZTAILAK 6</p> <p>Ipar Euskal Herriko Osasun Kontratuaren (OK) izenpetzea eta lehen ekintzen abiatzea.</p>	<p>2023, URTARRILAK 1</p> <p>Hondakinen bereizketaren erreforma indarrean sartu zen, 2021eko uztaileko hondakinen bide-orriarekin bat eginez.</p>
<p>2021EKO URTARRILA</p> <p>Euskal Elkargoak Mugikortasun Plana (MP) onartu zuen ingurumen-eragin murrizteko, eta osasuna eta segurtasuna hobetzeko xedez.</p>	<p>2022, UZTAILAK 9</p> <p>Euskal Elkargoak 2021-2026 lurralde proiektua bozkatu zuen, Ipar Euskal Herri erresiliente, bizi eta engaiatu baten alde.</p>	<p>2023, UZTAILAK 1</p> <p>Elkargoko Kontseiluak Ekonomia Eraldatzailearen bide-orria eta Idorte-Plana onartu zituen.</p>
	<p>2022, IRAILAK 24</p> <p>Erresilientzia eta Eraginkortasun Kontratuaren abiatzea. Batzorde Nagusiak onartu zuen lurraldeko enpresa ekoizleen aldeko laguntza zuzeneko dispositibo hori. Enpresen garapena sustatzea du helburu, eraginkortasun industrial, ekologia- eta energia-trantsizioa eta gizarte eragin baikorra uztartuz.</p>	<p>2023, UZTAILAK 1</p> <p>Elkargoko Kontseiluak Ekonomia Eraldatzailearen bide-orria eta Idorte-Plana onartu zituen.</p>
		<p>2023, IRAILAK 30</p> <p>Euskal Elkargoko Elkargoko Kontseiluak 2023-2026 aldirako GEEASE onartu zuen.</p>

Ekimen ugarirekin koherentzian, hala nola bere Lurralde Proiektua eta Klima Plana, Euskal Elkargoak lehen GEEASE osatu zuen 2023-2026 aldirako erosketa arduratsuen bide-orri estrategiko gisa.

GAUZATU DIREN EKINTZA ZENBAIT

Eskaera publiko jasangarrien alorrean, hainbat ekimen konkretu eta eredugarrik frogatzen dituzte Euskal Hirigune Elkargoaren engaiamendu eta nahikeria baikorrak:

- **Euskal Elkargoak energia erosketa-talde bat koordinatzen du eta 2021ean bertako kooperatiba bati esleitu dio elektrizitate berriztagarria hornitzeko merkatua.** Gainera, taldeko kideek jatorri berriztagarriko gasa (biometanoa) ere eros diezaioke Akitania-Berria eskualdean kokatua den hornitzaile bati;
 - **Eraikuntza eta arraberritze jasangarriei dagokienez, Euskal Elkargoak ingurumen-eragin ahuleko materialen eta/edo jatorri biologiko/geologikoko erabilera garatzen du.** Eraikin proiektuek Euskal Elkargoaren jasangarritasun exigentzia hori bete-betean segitzen dute eraikuntza obren merkatuetan. Horren adibide dira, Izura-Azmeke Ostavals paisaien, gastronomiaren eta Donejakueko ondarearen balioan ezartzeko zentroa eta Ezpeletako Mamurrak haurtzaindegia, biek "Energia Positibo eta Karbono Murrizketa" (E+C) egiaztagiraren irizpideak betetzen dituztelarik, diseinu bioklimatikoari eta jatorri biologikoko eta geologikoko materialei esker (lur gordinezko adreiluz eginiko inertzia-hormak, itzal-xaflak orientagarriak, putzu kanadiarra, ur beroko ontzi termodinamikoa, zurezko egitura eta lastozko isolamendu termiko eta fonikoa).
 - **Euskal Elkargoak ekonomia zirkularrari leku egiten dio obra merkatuetan.** Hainbat deseraikuntza proiektu abiatu dira, besteak beste Mugerreko pleita-gune europarrean eta Angeluko kirol portuan. Deseraikuntza selektiboko proiektu hauetan obra larrietako materialak eta bigarren mailakoak (altzairuzko habeteria, kanpoko zureriak, sapai akustikoak, beira-artilezko isolagailuak, komunak,...) Agorastore plataformaren bidez saltzen dira edo berreskuratzen elkargoaren eraikin berrietan erabiltzeko.
 - **Zerbitzu eskaintzako merkatuentzat, bereziki garbiketa zerbitzuentzat, Euskal Elkargoak garbiketa produktu naturalak edo soluzio probiotikoak erabiltzen dituzten garbiketa zerbitzuak kontratatu ditu,** eta aldeberean SAFE-LI protokoloa betetzen dutenak publiko gazteentzako (haurtzaindegiak, aisialdi zentroak).
 - **Gizarte arloari dagokionez, merkatu arduratsuen aldeko ekintzaren baitan, Euskal Elkargoak lanbideratze klausulak txertatzen ditu enplegutik urrunduak diren pertsonen lanbideratzeko.** Horretarako Baionako "GIP DSU Bayonne Pays Basque" egiturak Euskal Elkargoa, enpresak eta langabetuak laguntzen ditu urraspide horren aurrera eramateko. Orokorri, erran daiteke 2022an lanbideratze orduen kopurua emendatu dela Euskal Elkargoan, (+%68): 15 480 oren 23 ekintzatan banaturik, nagusiki eraikinen eraikuntza eta zaharberritze lanetan, edo ur eta saneamendu sareetako lanetan (iturria: 2022ko jarduera txostena). Honela, 2022an, lanbideratzeak 71 lan-kontratu sortu ditu.
- GEEASEren helburua da gizarteratzea beste merkatu mota batzuetara hedatzea, besteak beste zerbitzu alorrera (elkargoko eraikinen eguneroko garbiketa merkatua, zeinak gizarteratze oren kopurua finkatua baitu. Merkatuaren lehen bi aldiatarako aurreikusitako oren kopurua 656,71 orenekoa da. Merkatuaren esleipendunak, garai berean 1 208,98 oren eginen dituelarik).

GEEASEREN DISEINATZEA

EUSKAL ELKARGOAREN 2023-2026 GEEASE PROIEKTUA

Energia-Trantsiziorako eta Ekologia-Plangintzarako Idazkaritza Nagusian (ETEPIN) txertaturik dauden arau, zeharkakotasun, ingurumen eta gizarte eredugarritasun erronkei ihardesteko, “erosketa arduratsuen” egitekoa da, eskaera publikoaren zerbitzuarekin lankidetzan, Euskal Elkargoko Zuzendaritza Nagusiei eta lurraldeko herriei «ekologikoki eta sozialki arduratsuak diren erosketen» estrategia eta laguntza bat proposatzea eta bermatzea.

GEEASE formako erosketa arduratsuen estrategiarako bide-orria finkatuz, Euskal Elkargoak honako erronkei erantzun nahi die 2023-2026 aldirako:

LEGEAREN ERRESPETATZEA
eta bere nahikeria eta
eredugarritasuna frogatzea
erosketen arloan

**EROSKETEN ESTRATEGIA
OROKORRA EZARTZEA**
Euskal Elkargo osoarentzat

**EROSKETA
ARDURATSUEN
KULTURA
AMANKOMUN BAT
HEDATZEA**

**KLIMA PLANAREKIN ETA HAREN
EBALUAZIO TRESNAREKIN
(KLIMA-AIRE-ENERGIA
EGIAZTAGIRIA)**
koherentzian jardutea

**LURRALDEKO ERAGILE
EKONOMIKOEN GAITASUNAK
EMENDATZEA**
erosketa arduratsuei dagokienez

**DISPOSITIBO EGITURATZAILEA
OSATZEA,**
erosketa praktikan
aldaketak egiteko, Elkargoan
bertan eta lurralde osoan

**EROSKETA PUBLIKOAK
LURRALDEAREN EKOLOGIA
TRANTSIZIOAREN ALDEKO**
zeharkako palanka
ekonomikotzat hartzea

**EROSKETA
ARDURATSUAK
ZEHARKAKOTASU
NETIK ETA
HOBEKUNTZATIK
KUDEATZEA**
adierazle sistema
bati esker

EUSKAL ELKARGOAREN GEEASEREN OSATZEKO METODOLOGIA

Euskal Hirigune Elkargoaren lehen GEEASERen osatzea honako puntuetan bermatzen da:

PROIEKTUAREN GIDARITZA

argiki zehaztua eta Energia-Trantsiziorako eta Ekologia-Plangintzarako Idazkaritza Nagusiko (ETEPIN) “erosketa arduratsuak” taldearen esku;

ELKARGOKO 4 HAUTETSIREN SUSTAPEN POLITIKOA:



**Martine
BISAUTA**

3. lehendakariordea
Ekologia eta Energia
Trantsizioa - Hirigune
hiritarra



**Jean-Pierre
LAFLAQUIERE,**

14. lehendakariordea
Goi mailako
irakaskuntza,
ikerketa eta
formakuntza - CPERko
gidaritza - Eskaera
publikoak



**Maitena
CURUTCHET,**

Kontseilari
ordezkaria,
Ekonomia Sozial
eta Eraldatzailea -
Ekonomia zirkularra



**Solange
DEMARCO-
EGUIGUREN,**

Kontseilari ordezkaria,
Ingurumena eta
eremu naturalak
balioan ezartzea
- Bioaniztasunaren
zaintza - Arrisku
nagusien prebentzioa

BARNE DIAGNOSTIKO BAT HONELA EGINIK:

- 2020an aurkeztu ziren 1. egoera-akta eta erosketen lehen bide-orria;
- Zuzendaritza Nagusi Orde (ZNO) guziekin topaketa, lehen harremantze batentzat eta erosketen “ekintza-erreferenteen” identifikatzeko;
- Ekintza-erreferenteen arteko topaketa, arlokako erosketa erronkak zerrendatzeko eta zuzendaritza bakoitzak duen erosketa-heldutasuna neurtzeko;
- On-line galdetegi bat ehun bat pertsonari helaraztea (langileak, hautetsiak, hornitzaileak eta sare profesionalak (MIG, Lanbide Ganbera, 3AR, ...)) erosketa arduratsuez duten ezagutza orokorra neurtzeko.

KANPO DIAGNOSTIKO BAT:


- beste erakunde batzuetan egiten dena behatuz;
- 3AR, le Commissariat Général au Développement Durable (CGDD), France Urbaine bezalako egiturek proposatzen dituzten gidak eta metodologiak baliatuz.

Metodologia horretatik eta identifikatu diren erronketatik 5 ardatz atera ditugu lehen GEEASERentzat 2023-2026 aldirako

GEEASEREN ARTIKULATZEA

GEEASEK Euskal Hirigune Elkargoaren erosketa arduratsuen estrategia egituratzeko 5 ardatz proposatzen ditu, erronka nagusiei erantzunak emanez. Ardatz bakoitzari helburuak, ekintzak eta jarraipen adierazleak dagozkio. Sistema horri esker, erabaki estrategikoak eta ekintzaileak ebaluatu, jarraitu eta doitu ahalko dira, eta honela Euskal Elkargoaren erosketa arduratsuen pertinentzia bermatu ahalko da.

“ ZEHARKAKO ” ARDATZA



Euskal Elkargoaren erosketa gastuen egituraketa eta kalifikazioari buruzkoa, eraginkortasun orokor batentzat.

“ EKOLOGIA-TRANTSIZIOA ” ARDATZA




Euskal Elkargoaren erosketen ekologia-eragina murrizteko neurritasuna, hondakinen murrizketa eta horien birziklatzea, natura-baliabideen geriza eta neurrizko energia-kontsumoa lehenetsiz.

“ OSASUNAREN ” ARDATZA




langileen eta herritarren osasuna zainduko dituzten erosketen helburuak finkatuz (besteak beste elikadura osasuntsua, kanpoko eta barneko airearen kalitatea,...).



“ GIZARTE ETA GIZARTE-EKINTZA ” ARDATZA

erosketa xedeak eredu inklusiboagoetara bideratuz lanetik urrunduak direnak lanbideratzeko eta genero berdintasuna sustatzeko.

“ ekonomia ” ARDATZA



elkargoaren eta ekonomia-eragileen arteko lankidetzak garatzeko, lurraldeak ekonomia-jarduera arduratsu eta bertutetsua ukan dezan.

Bost ardatzen helburua da eskainiak diren zerbitzuak segurtatzea (finantza, legedi, kalitate eta jarraikortasun ikuspegietatik) ekologia eta gizarte dimentsioen arabera (eta ez alderantziz).

“ ZEHARKAKO ” ARDATZA



**ESKAERA PUBLIKOEN
ETA EROSKETEN FINANTZA-
KUDEAKETA ONA
ETA ARDURATSUA GARATU
NAHI DUEN ERAKUNDE BAT.**

“Zeharkako” ardatzarekin GEEASEk, erosketa esparru “bateratua” proposatu nahi du, gastuen eta erosketa praktiken zeharkakotasun handiagoa ahalbidetzeko. Konkretuki, ardatz honetatik Euskal Elkargoaren erosketen eta hornitzaile taldearen ikuspegi sendotu eta orokor batentzako proposamena jalgi behar da, erosketa gastuen egituraketa eta erosketa eta logistika praktiken koordinazioa proposatuz.

“ZEHARKAKO” ARDATZAK HONAKO GALDERAK EGITEN DITU:

**NORK, ZER, NOLA
ETA NORI
EROSTEN DIO?**

**ZEINTZUK DIRA
GASTU NAGUSIAK
(EROSKETA-FAMILIA
NAGUSIAK)?**

**NOLA
BANATZEN DIRA
IDENTIFIKATU DIREN
EROSKETA-FAMILIAK?**

**NOLA
EGITURATZEN DA
HORNITZAILE-
TALDEA?**

**ZEINTZUK DIRA
EROSKETA-FAMILIA
ESTRATEGIKOAK
(ERAGINKORTASUNA
HOBETZEKO)
ETA ARRISKUTSUENAK
(ARRISKUAK
KUDEATZEKO)?**

**NOLA
ELKARRI LOTU
EROSKETA-
SEGMENTAZIOA
ETA BARNE-
NOMENKLATURA?**

HELBURU OROKORRAK	EKINTZA-HELBURUAK	EKINTZA ADIBIDEAK	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK
<p>1. HELBURUA:</p> <p>EUSKAL ELKARGOAREN EROSKETA GASTUEN EGITURATZEA</p> <p>ERREFERENTZIAL AMANKOMUN BATEN ALDE ETA EKOLOGIA ETA GIZARTE DIMENTSIOK HOBEBI KONTUAN HARTZEKO</p>	<p>➤ 1.1 ITU-HELBURUA</p> <p>Euskal Elkargoaren erosketa gastuak sendotzea eta kalifikatzea*.</p> <hr/> <p>➤ 1.2 ITU-HELBURUA</p> <p>Euskal Elkargoaren zeharkako erosketak identifikatzea.</p>	<p>➤ a EKINTZA: barne nomenklatura oro operazional eta derrigorrezko bilakaraztea* (ezinbestekoa berme juridikoarentzat eta erosketen mapa baten osatzeko*).</p> <hr/> <p>➤ B EKINTZA: ZNO-arteko beharren eta asmoen errolda eta egoera baten egitea, ZNOen beharren nomenklaturan eta erroldan oinarrituta*.</p>	<p>2023</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nomenklaturaren beta bertsio baten proposatzea, Finantza Gaietako Zerbitzuetan probatzeko*; - Nomenklatura CIRIL* plataforman txertatzea; - Finantza Gaietako Zerbitzu eta Zuzendaritzetan informazio saioren antolatzea; - Nomenklatura operazional eta derrigorrezkoa berantentik 2023/12/31an indarrean ezartzea. <p>2024</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. finantza-eruzketa egiaztapenerako, 2024ko ekainean; - 2025eko merkatu-beharren erroldarentzako lehen erabilpena eta familien homogeneizazioa; - Erosketen mapa egonkortua osatzea (erosketen zenbatekoa, hornitzaile-taldea, erosketa-familiak familia homogeneoen printzipioan oinarrituz).
<p>2. HELBURUA:</p> <p>EUSKAL ELKARGOAREN EROSKETA ARDURATSUEI BURUZKO KOMUNIKAZIOA ETA EZAGUTZA OROKORRA INDARTZEA</p>	<p>➤ 2.1 ITU-HELBURUA</p> <p>Arlokako erreferenteez* osaturiko "erosketa-lekuko" sarea aktibatzea eta animatzea, zeharkako urraspide baten abiarazteko eta bide-orriaren eta erosketa asmoen ikuspegi orokorra errazteko.</p> <hr/> <p>➤ 2.2 ITU-HELBURUA</p> <p>Euskal Elkargoaren GEEASE partekatzea eta esplikatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ZNO, arlokako erreferente, hautetsi, hornitzaile eta sareek ongi ulertzea eta ongi erabiltzea; - herriei eta satelitei informazioa zabaltzeko. <hr/> <p>➤ 2.3 ITU-HELBURUA</p> <p>Erosketa arduratsuetako solaskideen rolari eta eginkizunei buruzko eta eskaera publikoarekin duten osagarritasuna azaltzeko esparru orokor eta pedagogikoa proposatzea.</p>	<p>➤ c EKINTZA: arlokako erreferenteen sarea identifikatzea eta egonkortzea;</p> <p>➤ D EKINTZA: trukaketa eta informazio saiok proposatzea (erosketa arduratsuei buruzko gako-informazioak eta albisteak partekatzea, aholku-tresna: «rapidd» plataforma, enpresa hazitegiko kontaktuak).</p> <hr/> <p>➤ e EKINTZA: Euskal Elkargoaren erosketa arduratsuen estrategia aurkezteko saioren antolatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Elkargoko langileentzat; - eragile ekonomikoentzat; - herrientzat. <hr/> <p>➤ F EKINTZA: erosketa arduratsuei buruzko dokumentu pedagogiko eta dibulgazikoa osatzea (kontaktua, eginkizunak, esku-hartze esparruak esparruak, abantailak,...) Euskal Elkargoko langileei eta satelitei, herriei eta haien satelitei zuzendua.</p> <p>➤ G EKINTZA: erreferentzial amankomun eta praktikoa proposatzea (dokumentu eredu).</p>	<p>2023 - 2026</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arlokako erreferenteen zerrenda balioetsia; - Sareari erosketa arduratsuei buruz proposatutako zaizkion gaikako bilkuren kopurua (eskaera publikoaren zerbitzuaren eta kanpoko erakundeen laguntzarekin: 3AR*, ADEME*,...). <hr/> <p>2023</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arlokako erreferenteei Euskal Elkargoaren erosketa arduratsuen (GEEASE) estrategia aurkeztea; - Merkataritza Ganberarekiko topaketan GEEASE aurkeztea*; - GEEASE xarta modura egokitzea eta motion-design moduko bideo baten egitea, GEEASE zabalago hedatzeko. <p>2024</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lurralde eremu bakoitzarekin elkartzea GEEASE aurkezteko; - 2024-2026 aldirako laguntza bide-orri operazionala. <hr/> <p>2024</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Elkargoko «erosketa arduratsuei/eskaera publiko» bikotearen rola eta eginkizunak modu pedagogikoan aurkezteko euskarria; - Erosketa prozedura formalizatua (GEEASEren egituraketa, erosketen gobernantza, datuen bilketa,...); - Erosketetarako eredu-dokumentuen liburutegi bat; - Euskal Elkargoaren intranetean eta webgunean elkargoaren erosketei buruzko informazio atal bat.
<p>3. HELBURUA:</p> <p>EUSKAL ELKARGOAREN EROSKETA ARDURATSUEN ESTRATEGIAREN EBALUATZEA</p>	<p>➤ 3.1 ITU-HELBURUA</p> <p>Euskal Elkargoaren erosketen bide-orri estrategiko eta ekintzailearen eraginkortasuna ebaluatzea.</p>	<p>➤ H EKINTZA: Euskal Elkargoko LKAEP*, jarduera txosten eta Garapen Jasangarriko txostenerako ebaluazio erreferentzial baten osatzea erosketa arduratsuen eraginkortasuna partekatzeko xedez.</p> <p>➤ I EKINTZA: GEEASEren ekintza planaren gauzatzearen jarraipena egiteko ekintza fitxak osatzea, eta eskemaren eraginkortasuna eta pertinentzia ebaluatzea balizko doikuntzak egiteko.</p>	<p>2024 - 2026</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erosketen aginte-panel baten egonkortzea; - GEEASEren ekintza-fitxak eta helburen urteko bilana osatzea (besteak beste ekintza-fitxi esker).

“ TRANTSIZIO EKOLOGIKOAREN ” ARDATZA



INGURUMENEAN DUEN ERAGINAREKIN KEZKATUA DEN ERAKUNDEA, ETA BERE EROSKETAK HONAKO IRIZPIDEETAN OINARRITZEN DITUENA: NEURRITASUNA, HONDAKINEN MURRIZKETA ETA BIRZIKLATZEA, NATURA-BALIABIDEEN GERIZA ETA ENERGIA KONTSUMOEN ZAINZEA.

Euskal Elkargoaren eskaera publikoa erakundearen 2022ko aurrekontuaren heren batekoa zen, 4 000 hornitzaileekin. Hori dela-eta, erakundearen energia- eta ekologia-trantsizioan parte hartu behar du. Eta horren aurrean, GEEASEk Lurraldeko Klima-Aire-Energia Plana (LKAEP) lagundu behar du, zeinak 2050erako egiazko energia-klima estrategia proposatzen dion lurraldeari 4 helburu nagusirekin:

IPAR EUSKAL HERRIKO
ENERGIA-KONTSUMOAK
%49
MURRIZTEA

ENERGIA BEHARREN
%100
BETETZEA ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN
EKOIZPENARI ESKER

BIOANIZTASUNA ETA
GIZA-JARDUERAK
KLIMA ALDAKETEI
EGOKITZEN
AHALBIDETZEA

LURRALDEKO
JARDUEREN
BEROTEGI-EFETUKO
GASEN ISURTZEAK
%56
MURRIZTEA

HELURU OROKORRAK

EKINTZA-HELURUAK

EKINTZA ADIBIDEAK

JARRAIPIEN ADIERAZLEA

EROSKETA ARDURATSUEN KULTURA TXERTATzea

EROSKETA ARDURATSUEN KULTURA TXERTATzea

4. HELBURUA:

ARLOKAKO ZUZENDARITZAK
LAGUNTzea INGURUMEN
IRIZPIDEAK ERABIL
DITZATEN eta HORIEN
JARRAIPIENA EGIN DEZATEN
EUSKAL ELKARGOAREN
MERKATUETAN

➤ **4.1 ITU-HELBURUA**
Barne-ezagutza orokorra indartzea.

➤ **4.2 ITU-HELBURUA**
Merkatu mota bakoitzarentzako aktiba daitekeen erreferentzial estandarra proposatzea (lanak, hornikuntzak, zerbitzuak) hemendik 2025era merkatu guzkiek ingurumen irizpideak txerta ditzaten (ikus PNAD* 2022-2025).

➤ **a EKINTZA:** ingurumen* irizpideei buruzko informazio saiok antolatzea arlokako erreferentzen sarearentzat (arauzko testuingurua, aukerak, adibideak, helburuak).

➤ **B EKINTZA:** merkatuentzako "erabiltzeko prest" diren tresnak osatzea (klausula-kutxa, enpresen kontsulta txostenetan txertatu beharreko ebaluazio irizpideak,...).

➤ **C EKINTZA:** turismo zuzendaritzaren ebaluazio taulako "erosketa arduratsuak" atalaren osatzean parte hartzea (Ekonomia ZNO).

2024

- Eskaintzen ebaluazioan txertatu beharreko natura-baliabideen kudeaketa ona balioan ezartzeko irizpideen kopurua (ingurumen irizpideak);
- Erosketa digital arduratsuen esparru baten osatzea;
- Produktuen jasagarritasuna ahalbidetzeko analisi kopurua, kostu osoa kontuan hartuz.

PRODUKTUEN BIZI-ZIKLOA

PRODUKTUEN BIZI-ZIKLOA

5. HELBURUA:

KONTSUMO EREDU
ARDURATSUA GARATzea
LURRALDE ERRESILIENTE
BATEN ALDE
(BIOANIZTASUNA,
NATURA-BALIABIDEAK,
ZIRKUITU LABURRAK)

PRODUKTUAREN JATORRIA:

➤ **5.1 ITU-HELBURUA**
Berrerabilpenetik eratorritako gaien erostea lehenestea (AGEC* legea segituz).

➤ **5.2 ITU-HELBURUA**
Bertako erosketak eta zirkuitu laburrak lehenestea (CCP* segituz). (LKAEP: 5. ardatza/ 3. ekintza + 6. ardatza/5. ekintza).

EKOIZPEN PROZESUA/PRODUKTUAREN ERABILERA:

➤ **5.3 ITU-HELBURUA**
Erostea eta kontsumitzea bioaniztasuna eta natura-baliabideak zainduz (bereziki uraren kudeaketa eta erabilera). LKAEP: 1. ardatza/ 1+2 ekintza eta 6. ardatza/2. ekintza.

➤ **5.4 ITU-HELBURUA**
Produktu eta materialen iraunkortasuna indartzea.

PRODUKTUEN BIZI-BUKAERA KUDEATU:

➤ **5.5 ITU-HELBURUA**
Ekonomia zirkularra eta berrerabilpena lehenestea arauk finkatutakoa betez. LKAEP: 6. ardatza/4. ekintza.

➤ **D EKINTZA:** deialdietarako hautagaiek AGECE frantses legea betetzen dutela sistematizatzea (esleipendunei estatistikak, jarraipena eta ebaluazioa eskatzea).

e EKINTZA: hornitzaileak Eusko ordaintzeko aukera proposatzea.

2024an HASIZ

- Frantziako AGECE legeak eta haren aplikazio dekretuek finkatu atalasean arabera gai berrerabiliak edo birziklatuak dituzten erosketa-familia bakoitzarentzako urteko gastu orokorren helburuak;
- Euskotan ordaindu diren hornitzaileen kopurua eta ordainketen zenbatekoak.

➤ **F EKINTZA:** enpresek, laborariak eta industrietan merkatuaren esparruan natura-baliabideak ongi kudeatzen dituztela balioan ezartzea.

➤ **G EKINTZA:** -Euskal Elkargoaren karta digital arduratsuan ekarpenak egitea (materialak, softwareak, zerbitzuak eskuratzeko erosketa esparru arduratsua...).

➤ **H EKINTZA:** eraikinen eta hornikuntzen bizi-iraupena luzatzeko gogoeta ardatzak proposatzea.

2024 - 2026

- Eskaintzen ebaluazioan txertatu beharreko natura-baliabideen kudeaketa ona balioan ezartzeko irizpideen kopurua (ingurumen irizpideak);
- Erosketa digital arduratsuen esparru baten osatzea;
- Produktuen jasagarritasuna ahalbidetzeko analisi kopurua, kostu osoa kontuan hartuz.

➤ **I EKINTZA:** eraikuntza eta obra publikoetako hondakinen birziklatzea garatzea, prozeduran txertatua den jarraipen tresna bati esker.

➤ **J EKINTZA:** elikagaien zahutzearen kontra borrokatzea (saltoki sozialekin eta hazkurri-bankuarekin lankidetzan).

2024 - 2026

- Agorastore bidez eginiko erosketen kopurua (Euskal Elkargoko ekipamendu oro);
- Erosketa sailaren hondakinen balioztate tasa;
- Hornikuntza/gai/materialen berrerabilpena egiten duten merkatuen %a (araudiekin loturik).

TRANSITION ÉNERGETIQUE ET ÉCOLOGIQUE DU BTP

ERAIKUNTZA ETA OBRA PUBLIKOEN ENERGIA- ETA EKOLOGIA-TRANTSIZIOA

6. HELBURUA:

MODU JASANGARRIAN
ERAIKITzea eta
ERABERRITzea

➤ **6.1 ITU-HELBURUA**
Elkargoko eraikinen eko-eraikuntza eta eko-eraberritzea sustatzea. LKAEP: 3. ardatza/4. ekintza.

➤ **6.2 ITU-HELBURUA**
Euskal Elkargoaren energia-trantsizioa sustatzea. LKAEP: 7. ardatza.

➤ **K EKINTZA:** karbono-eragin txikiko **materialekin eraikitzea eta eraberritzea*** (material biologikoak eta jatorri geologikokoak); material biologiko, jatorri geologikoko eta berrerabilpeneko materialak esperimintatzeko aproposak diren merkatuak identifikatzea.

➤ **L EKINTZA:** eraikuntzamerkatuetan estandar "pasiboan"* oinarritutako eraikuntzak exigitzea; eta eraginkortasuna hobetzeko merkatuentzat **KTE* Effinergie Renovation egiaztagiria eskatzea.**

➤ **m EKINTZA:** **EBH*** (Engaiamendu Boluntarioko Hitzarmena) txertatzea balioan ezartzeko ebaluazio irizpide gisa.

2024 - 2026

- Karbono-eragin txikiko materialetan oinarritutako elkargoko eraikuntza proiektuen kopurua;
- Eraberritze proiektuak: obren aurretiko eta ondoko energia-kontsumoen alderaketa (lehen/gero);
- Eraikuntza proiektuak: RE2020 araudiaren eta estandar "pasiboaren" arteko kontsumoak (eraikuntza berrientzat).

2023 - 2026

- Gutxienez %85ean energia berriztagarriekin edo berreskurapenekoekin hornitutako bero-sareei lotutako elkargoko eraikinak;
- Elektrizitate eta gas erosketen %100 sail eta iturri berriztagarrietatik (jatorri/trazabilitatea jatorri-egiaztagiriaren bidez).
- Elkargoko eraikinetako eguzki-energiaren auto ekoizpena (aparkalekuak, eraikinak) (eguzki plana: 300 kWc* => 1,7 MWc* 2025erako).

“ Osasunaren ” ardatza



**Bere Langileen,
erabiltzaileen,
sozio-profesionalen
eta herritarren osasunaz
kezkutzen den erakundea,
eta kalitatezko elikadura
eta aire-kalitate ona
(barnean eta kanpoan)
sustatzen dituena.**

Frantziako Ekologia-trantsiziorako eta Lurraldeen arteko kohesiorako ministerioaren arabera, Frantzian airearen kutsadurak honako ondorioak ditu:

48 000
HILDAKO URTEAN
FRANTZIAN
("SANTÉ PUBLIQUE
FRANCE" IKERKETA),
HOTS HILDAKOEN
%9
ETA BIZI-ITXAROPENAREN
2 URTE GALTzea 30 URTE
DUTENETAN

BIZTANLERIAREN
%30
ARNAS SISTEMAREN
ALERGIA PAIRATZEN DU

OSASUN
SISTEMARENTZAKO
URTEKO GASTUA:
100 MILA MILIOI
EURO, FRANTZIAKO
SENATUKO BATZORDE
BATEN ARABERA

Mundu osoan, barneko eta kanpoko aire kutsadurek 7 milioi hildako eragiten dute urtean (MOEren ikerketa, 2014). Airearen kalitatea osasun erronka nagusia da. Izan ere, airearen kutsadurek erantzukizun nagusia baitute eritasun kardiorrespiratorioetan, burmuinekoetan eta minbizietan.

Osasunaren zaintzari loturiko beste erronka batzuek osatzen dute, baina, kanpoko airearen eragina: elikaduraren eta barneko airearen kalitatea. Euskal Elkargoaren Klima Planean eta Ipar Euskal Herriko Osasun Kontratuan (OK) txertaturik daude erronka horiek, bereziki, "osasunaren aldeko jarrerak sustatu" eta "Osasunaren aldeko inguruneak eta eremuak sustatu" ardatzetan.

"Osasuna" Ardatza Elkargoaren Klima Planean eta Osasun Kontratuan txertatzen da.

HELBURU OROKORRAK	EKINTZA-HELBURUAK	EKINTZA ADIBIDEAK	INDICATEURS DE SUIVI
<p>7. HELBURUA: ELIKADURA-KONTSUMO OSASUNTSUA HAUTATZEA</p>	<p>7.1 ITU-HELBURUA Erosketen bidez, elikadura osasuntsua, jasangarria eta hurbileko laborantza sustatzea (elkargoko haurtzaindegientzat, aisialdi guneentzat, elkargoak antolatutako ekitaldientzat) Frantziako EGALIM legearen helburuak segituz. LKAEP: 5. ardatza/1. ekintza OK: 1. ardatza / 3. helburua</p>	<p>a EKINTZA: ekoizle eta/edo banatzaile egiaztatuekin kalitatezko produktuen hornikuntza sistema baten ezartzea (egiaztagiria, testak).</p>	<p>2024 - 2025 Elikadura eskaera-esparru kalitatezkoa, segurua eta optimizatua (elkargoko haurtzaindegia eta aisialdi guneak*); Kalitatezko eta bio produktuen %a (araudiaren arabera).</p>
<p>8. HELBURUA: BARNEKO AIRE-KALITATEA HOBETZEA ETA HORMONA-ASALDATZAILIEN MURRIZTEA</p>	<p>8.1 ITU-HELBURUA Hormona-asaldatzailen iturriak (egiaztatuak eta ustezkoak) eta kutsatzaile iraunkorrak (gutxienez arautuak direnak) baztertzea publikoari irekitako lekuetan (haurrentzako lekuak lehenetsiz). LKAEP*: 5. ardatza / 5. ekintza OK*: 3. ardatza / 4. helburua</p>	<p>B EKINTZA: garbiketa produktuak indexatzea eta garbiketa zerbitzu eskaintzen duten enpresei SAFE-LI* protokoloa eta RECOCRECHE* erreferentzialemo gomendioak segi ditzatela exigitzea haurtzaindegietan.</p>	<p>2023-2026 RECOCRECHE erreferentzialemo betetzea, xatarren, ikasmaterien eta garbiketa produktuen merkatuak formalizatzea,</p>
<p>9. HELBURUA: ATMOSFERAREN KUTSADURA BORROKATZEA*</p>	<p>9.1 ITU-HELBURUA Lurraldean koherentea eta bertutetsua den Euskal Elkargoaren logistika eskema bat proposatzea. LKAEP*: 5. ardatza / 4.+ 5. ekintzak OK*: 3. ardatza / 4. helburua</p> <hr/> <p>9.2 ITU-HELBURUA Merkatuen esparruan, esleipendunei banaketa eta mugikortasun urraspide eredugarriak eskatzea eta horien balioan ezartzea.</p> <hr/> <p>9.3 ITU-HELBURUA Euskal Elkargoko ibilgailuen (ibilgailu arinak eta astunak) flotaren berdetzea LKAEP: LKAEP: 4. ardatza</p>	<p>C EKINTZA: banaketa-guneak arrazionalizatzea, Euskal Elkargoko eraikin erreferenteak identifikatuz</p> <hr/> <p>D EKINTZA: honako merkatuentzat banaketa/ mugikortasun baldintzak txertatzea: - Material erosketaren guzientzat, 2023tik goiti banaketa deskarbonatua eta energia-kontsumo urrikoa eskatzea (bizikleta, ibilgailu elektrikoa). Exigentzia zurruna pertinentea ez denean, banaketa deskarbonatua eta energia-kontsumo urrikoa lehenetsia. Ahalaz, irizpide logistika-kate osoari aplikatuko zaio (trena, itsasontzia...) eta gutxienez azken banaketari (bizikleta, ibilgailu elektrikoa...).</p> <p>- Euskal Elkargoak kontratatutako dituen zerbitzu intelektualen merkatu guzientzat 2023tik aurrera hegazkin-bidaia baztertzea (bilkurak, bisitak...). Erabat baztertu ezin bada, lurreko garraioak baizik erabiliko ez dituzten eskaintzak lehenetsia.</p> <p>- Euskal Elkargoak kontratatutako dituen zerbitzu intelektualen merkatu guzientzat, 2023tik aurrera misio horrentzako autoz eginiko kilometro gutxi eraginen dituzten eskaintzak lehenetsia (bilkurak, bisitak...). Notazio hau hegazkinarenarekin uztartuko da, baldin eta hegazkina ez bada baztertzen. Ekintza honek mugikortasun aktiboak eta lurreko garraio publikoak erabiltzera akuilatzen du.</p> <p>- Euskal Elkargoak kontratatutako dituen zerbitzu eskaintza merkatu guzientzat non ibilgailuak behar diren, pertinentea denean energia-kontsumo gutxiko ibilgailuak eta deskarbonatua inposatzea, Hori ezinezkoa denean, fabrikazioarentzat eta ibilgailuen erabilerarentzat BEG gutxien isurtzen duten eskaintzak lehenetsia.</p> <hr/> <p>e EKINTZA: Euskal Elkargoaren ibilgailu parkea bilakaratzea, Frantziako LOM* legeak finkatu gutxieneko helburuak betetzeko.</p>	<p>2024 - 2026 Baliabide Orokorren hornikuntza merkatuentzako logistika eskema baten formalizatzea/</p> <hr/> <p>2023 - 2026 Banaketa eta garraio arloentzat eko-baldintzak txertatzen dituzten merkatuen %a eta bilakaera.</p> <hr/> <p>2023 - 2026 - Ibilgailu elektrikoaren %a eta bilakaera. - Karga elektrikorako azpiegituraren bilakaera (karga guneen kopurua eta hornitutako indarra).</p>

“ GIZARTE eta GIZARTE-ekintza ” ardatza



**ERAKUNDE INKLUSIBOAGOA,
EROSKETA ASMOAK
BIDERATZEN DITUENA ENPLEGUTIK
URRUNDUAK DIREN PERTSONEN
LANBIDERATZEA ERRAZTEKO eta
GENERO BERDINTASUNA SUSTATZECO.**

Eskaera publikoak palanka bikainak dira ekonomia-eragileak eredu inklusiboagoetara eramateko eta enplegutik urrunduk diren pertsonen lanbideratzea errazteko.

Hori dela-eta, Euskal Elkargoak %68 emendatu ditu lanbideratze orduak 2022an (nagusiki obra-merkatuen bidez).

Elkargoaren inklusio-urraspidea azkartze aldera, GEEASEk ekonomia eraldatzaileko eragileekiko harremanak garatzea planteatzen du, eta bereziki lanbideratzearen eragileekin merkatu publikoetarako sarbidea erraztea.

HORRETARAKO, BEHARREZKOA IZANEN DA:

**GIZARTERATZE KLAUSULA
EZARTZEA**

**BESTE MERKATU MOTA BATZUETAN,
HALA NOLA ZERBITZUETAN**

**GIZARTERATZEAREN
eta ENPLEGUAREN ALDE**

**ENGAIATUAK DIREN BERTAKO ERAGILEETAN
OINARRITZEA (BESTEAK BESTE, URTEROKO
EROSKETEN PROGRAMAZIOA PARTEKATUZ)**

**MERKATUETAKO LEGEZKO BETEBEHARRAK
OROITARAZTEA, BEREZIKI**

**DISKRIMINAZIO EZA eta GENERO
BERDINTASUNA**

**MERKATU ERRESERBATUEN
ERABILERA INDARTZEA**

HELBURU OROKORRAK

EKINTZA HELBURUAK

EKINTZA ADIBIDEAK

JARRAIPIEN ADIERAZLEAK

KULTURA BERRIA TXERTATZEA

KULTURA BERRIA TXERTATZEA

10. HELBURUA:

ARLOETAKO ZUZENDARITZAK LAGUNTZEA EUSKAL ELKARGOKO MERKATUETAKO GIZARTE IRIZPIDEAK ERABILI ETA SEGI DITZATEN



10.1 ITU-HELBURUA

Arlokako erreferenteen ezagutza orokorra indartzea (elbarritasuna, gizarteratzea, Ekonomia Eraldatzailea*...).



10.2 ITU-HELBURUA

Merkatu mota bakoitzarentzako aktiba daitekeen erreferentzial estandarra proposatzea obrak, hornikuntzak, zerbitzuak) hemendik 2025era merkatuen %30ek gizarte irizpideak txerta ditzaten (ikus PNAD* 2022-2025).



A EKINTZA: gizarte* irizpideei buruzko informazio saioak antolatzea arlokako erreferenteen sarearentzat: definizioak, arau-testuingurua, elbarritasun eta gizarteratze arloko eragileak, lankidetzak aukerak, adibide praktikoa eta konkretuak, helburuak, solaskideak,...



B EKINTZA: TGLP*rekiko trukaketak garatzea, Erraztailearekiko*, Ekonomia Eraldatzaileko beste sektoreekin.



C EKINTZA: merkatuentzako "erabiltzeko prest" diren tresnak osatu (klausula-kutxa, enpresen kontsulta txostenetan txertatu beharreko ebaluazio irizpideak,...).

2024 - 2026

- Arlokako erosketaren erreferenteentzako antolaturiko informazio bilkuren kopurua (ZNO eta eskaera publikoko zerbitzuarekin lankidetzan);
- Ingurumen irizpideak biltzen dituzten merkatuen kopuruaren diagnostikoa (GEEASEren definizioaren arabera);
- Arlokako erosketaren erreferente eta gizarteratzeko eragileen arteko topaketak (ZNO eta eskaera publikoko zerbitzuarekin lankidetzan)

2024

Merkatueta gizarte irizpideen erabilera eta jarraipen dispositibo bat (prozedurak, tresnak, deklarazioak, jarraipena).

GIZARTERATZEA

GIZARTERATZEA

11. HELBURUA:

ENPLEGUTIK URRUNDUAK DIRENEN GIZARTERATZEA EKONOMIA JARDUERAREN BIDEZ INDARTZEA ETA ELBARRITASUN ETA GERIZA ARLOKO EGITURETARA JOTZEA



11.1 ITU-HELBURUA

Gizarte klausula duten merkatuak dibertsifikatzea eta gizarteratze oren kopurua emendatzea



11.2 ITU-HELBURUA

Elbarritasun eta geriza arloko egituretara gehiago jotzea



D EKINTZA: Euskal Elkargoaren erosketaren programazioa urtero partekatzea Erraztailearekin, INAErekin, IEHko Tokiko Misioarekin, merkatu bakoitzean legozkeen gizarteratze aukerak identifikatzeko.



E EKINTZA: Erraztailearen bilana arlokako erosketaren erreferenteekin partekatzea, eta gizarteratzeko klausula dispositibo batetik iragan diren pertsonen ibilbideei buruzko adibide kualitatiboak eskaintzea (banakako elementu sendotuak).



F EKINTZA: gizartearekin partekatzea elkargoaren erosketaren asmoak, merkatu bakoitzak litzuzkeen gizarteratze aukerak identifikatzeko eta elbarritasun eta geriza sektorearengana gehiago jotzeko.



G EKINTZA: merkatu batzuk Ekonomia-Jarduera bidezko Gizarteratze Egiturei (SIAE*) eta Lanaren bidezko Laguntza Egiturei (LLE*) erreserbatzea.

2024 - 2026

- Gizarteratze klausularen bat duten merkatuen kopurua eta bilakaera;
- Gizarteratze klausularen bat duten merkatuen tipologiaren analisia eta bilakaera (obrak/hornitzaileak/);
- Merkatu erreserbatuen kopurua eta bilakaera.

DISKRIMINAZIOEN KONTRA BORROKATZEA

ETA GENERO BERDINTASUNAREN SUSTATZEA

12. HELBURUA:

DISKRIMINAZIO MOTA ORO BORROKATZEA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEA, BEREZIKI GENERO BERDINTASUNA



12.1 ITU-HELBURUA

Elbarritasun egoeran dauden pertsona guzietan Euskal Elkargoko zerbitzu eta ekipamenduetarako sarbidea bermatzea.



12.2 ITU-HELBURUA

Merkatu guzietan diskriminazio ezari buruzko legezko betebeharrak orotaraztea (merkatuetan arauzko betebeharrak orotaraztea).



12.3 ITU-HELBURUA

Genero berdintasunaren aldeko baldintzak exigitzea merkatuaren gauzapenean.



12.4 ITU-HELBURUA

Genero estereotipoak borrokatzea eta sail bakoitzean enplegu aukerak aurrez ikustea.



H EKINTZA: ekipamendu fisiko edota digital berri bat definitzerakoan, publiko gehienentzako irisgarritasun helburuak txertatzea, arauzko betebeharratik harago.



I EKINTZA: deialdietako dokumentuetan agerian ematea debekatua dela azpi-kontratatzeko diskriminazio eta berdintasun politikak ez betetzeagatik, eta enpresari eskatzea diskriminazio (Frantziako Zigor kodeko 225-1 artikulua) edo lan arloan genero bereizketa delituagatik zigortua ez dela idatziz adieraz dezala (Frantziako Lan kodeko L.1146-1 artikulua).



J EKINTZA: obra-merkatuak: obra lekuetan emazte eta gizonentzako azpiegitura berak exigitzea



K EKINTZA: haurtzaindegientzako genero estereotiporik gabeko ikasmateriala hornitzeko merkatuak izenpetzea (irizpen pedagogiko, ludikoa et hezitzailean duten merkatuak,...)

2024TIK GOITI

Diskriminazio ezaren arloan lege betebeharrak dituzten merkatuen kopurua.

2024 - 2026

Exigentzia hori duten merkatuen kopurua eta bilakaera.

2023 - 2026

- GEEASEren aurkezpenen bidez egi enpresenganako sentsibilizazio ekintzen zerrendatzea;
- Erraztaileari eskatutako gizarteratze orduen bilana (emazteek eta gizonek sektoreka egin orduak).

“ ekonomia ” ardatza



**ekonomia-eragileekin
Lankidetzazko harremana
garatzen duen erakundea,
erosketa gero eta
optimizatuago eta
arduratsuen alde.**

Eraginkortasun eta jasangarritasun helburuak lortzeko, Euskal Hirigune Elkargoak bere hornitzaileen eta orokorrean ekonomia-eragileen laguntza behar du. Horretarako, alde batetik, bere merkatuak prestatzeko ekonomia-eragileak hobeki ezagutu behar ditu, eta bestetik, egiten dituen erosketei buruzko informazioak gehiago partekatu behar ditu haiekin.

Euskal Elkargoak ekonomia-eragileekin duen harremana hobetzeko honako erronkak identifikatu ditu GEEASEk «ekonomia» ardatzerako:

**eskaera publikorako
sarbidea erraztea
eteentzat
eta ekonomia
eraldatzaileko
egiturentzat**

**“eskaera publikoa/
erosketa
arduratsua”
palanka baliatzea
lurraldearen
ekonomia-
garapenaren alde**

**merkatuen
ekonomia-
eraginkortasuna
hobetzea eta
euskal elkargoaren
erosketei datxizkien
gastuak hobeki
kudeatzea**

**LURRALDEARENTZAKO
ERAGINA DUTEN SAILAK
ETA BERRIKUNTZA
SUSTATZEA
(ADIB.: SAIL
JASANGARRIAK)**

**EUSKAL ELKARGOAREN
“ekonomia
eraldatzailea”
bide-orria
sostengatzea**

**LURRALDEAN EKONOMIA
ZIRKULAR BATEN
SUSTATZEAN
ETA EGITURATZEAN
PARTE HARTZEA**

HELBURU OROKORRAK

EKINTZA HELBURUAK

EKINTZA ADIBIDEAK

JARRAIPIEN ADIERAZLEAK

HORNITZAILEEKIKO HARREMANA

HORNITZAILEEKIKO HARREMANEN JARRAIPENA

13. HELBURUA:

ekonomia-eragileen ezagutza hobetzea (bereziki eteak eta ekonomia eraldatzaileko eragileak) EUSKAL ELKARGOKO MERKATUETARAKO SARBIDEA ERRAZTEKO, "BEHARREZKO BEHARRAK" FORMALIZATZEN LAGUNTZEKO, BERRIKUNTZA (TEKNIKOA, INGURUMENEKOA, SOZIALA) INDARTZEKO

- **13.1 ITU-HELBURUA**
Erreferentzial amankomun eta praktikoa osatuko duten ekintza-tresnak diseinatzea:
- sourcing tresna-kutxak, labelak, klausula-kutxak, dokumentu-oinarriak, hornitzaileen gidaritza...
- **13.2 ITU-HELBURUA**
Enpresen eskaera komertzialak zentralizatzea.
- **13.3 ITU-HELBURUA**
Ekonomia eraldatzaileko ETE eta eragileen hautagaitzen indartzea.
- **13.4 ITU-HELBURUA**
Mugaz gaindiko ekonomia-eragileen (bereziki ekonomia eraldatzailekoak) hautagaitzen indartzea.

- **a EKINTZA:** sourcing-erako laguntzea eta "erabiltzeko prest" diren tresna-kutxak formalizatzea: "Behaketa eta sourcing" tresna-kutxa bat proposatzea, baita informazio bilkurak ere, erosketa teknika horren hobeki barneratzeko (abantailak, modalitateak, zaindu beharreko gauzak,...).
- **B EKINTZA:** interfaze bat proposatzea enpresek formularioa online bete dezaten. Beste entitate publiko eta pribatu zenbaitek bezala, URL esteka bidez irekitzen den online formularioari esker, enpresekiko lehen harremanak zentralizatuko dira eta datu base bat osatzen ahalko da (izen komertziala, jarduerak, barne-harremanak, berezitasunak, esku-orri komertziala,...) eta sourcing-erako baliatu.
- **C EKINTZA:** erosketa trukaketak indartzea sare eta sindikatu profesionalekin (EFF*, ALG*, MIG*, CRESS*, France Active, HEMEN*, DLA*, Tarnoseko lurralde inkubatzailea,...).
- **D EKINTZA:** erosketa trukaketak indartzea sare eta erakunde profesionalekin.

- 2023**
"Behaketa eta sourcing" tresna-kutxa.
- 2024 - 2026**
Sourcing-erako bilkura eta laguntza kopurua.
- 2024**
Enpresentzako formularioa Euskal Elkargoaren webgunean eskura ezartzea.
- 2024 - 2026**
- Identifikatu diren enpresen kopurua (besteak beste (ETE eta Ekonomia Eraldatzaileko eragileak);
- Enpresa-harrobirik ateratako kontsultatu diren enpresen kopurua erosketa proiektu batentzat.
- 2024 - 2026**
- Sindikatu profesionalen sareekiko topaketa kopurua;
- Deialdietara aurkeztu eta esleipendun izan diren ETE eta Ekonomia Eraldatzaileko eragile kopurua.
- 2024 - 2026**
- Mugaz gaindiko eragile nagusien mapa (besteak beste Ekonomia Eraldatzailea);
- Mugaz gaindiko sare eta erakunde profesionalekin eta ekonomia-eragileekin egindako topaketa kopurua (besteak beste Euskal Elkargoaren erosketa asmoen berri emateko);
- Deialdietara aurkeztu diren mugaz gaindiko hautagai esleipendunen kopurua.

14. HELBURUA:

EROSKETEEN GAKO-INFORMAZIOAK EKONOMIA-ERAGILEEKIN PARTEKATzea SEGURTATU eta EGITURATU

- **14.1 ITU-HELBURUA**
Euskal Elkargoaren merkatuak urte bat lehenago zerrendatzea eta elkargoaren urte anitzeko planifikazioa partekatzea ekonomia-eragileekin (osoko bilkuran, webgunean, sareak,...) (webgunean sarbide berezia ezarriz eta enpresak osoko bilkurara gonbidatuz).
- **14.2 ITU-HELBURUA**
Hornitzaileekiko harreman arduratsua proposatzea "RFAR" erreferentzialean oinarrituta.

- **e EKINTZA:** Euskal Elkargoaren hurrengo urteko merkatuak sendotzea eta partekatzea.
Urtero eta barnerako eskaera publikoaren zerbitzuak osatzen duen Euskal Elkargoaren merkatuen urte anitzeko programazioaren euskarria doitzea eta hedatzea, merkatu bakoitzarentzako ingurumen eta gizarte irizpideak txertatuz.
- **F EKINTZA:** urtero EFFk* antolatzen duen Eskaera Publikoaren Ahozko Handian parte hartzea.
- **G EKINTZA:** auto-posizionamenduaren galdeketari erantzutea "RFAR" erreferentzialaren diagnostikoa egiteko. Horri esker, "Hornitzaileekiko Harremana eta Erosketa Arduratsua" (HHEA/RFAR) gutuna izenpetzeko hobetu edo abiatu behar diren ekintzak ebaluatzeko, eta "RFAR" labelazioa abian ezartzeko.

- 2024 - 2026**
- Merkatuen urteko programazioa sarean ezartzea eta seihileko eguneratzeekin;
- Ekonomia-eragileen topaketak osoko bilkura formatuan;
- Urtean programatutako merkatuen eta gauzatu diren arteko ratioaren bilakaera (gauzatzeko tasaren jarraipena);
- Deialdietara aurkeztu diren kopurua.
- 2024 - 2026**
- Auto-posizionamendu galdeketan oinarritutako diagnostikoaren egitea eta aurkezteak;
- Hobekuntza ardatzen identifikatzea bitartekariarekin.

GASTU PUBLIKOAK

ERAGINKORRA eta ARDURATSUA

15. HELBURUA:

merkatuen ekonomia-ERAGINKORTASUNA HOBETzea

- **15.1 ITU-HELBURUA**
Eskaintzak kostu osoaren arabera aztertzea*.
- **15.2 ITU-HELBURUA**
Merkatueta negoziazio fase bat txertatzea.

- **H EKINTZA:** eskaintzak aztertzerakoan kostu osoaren analisia erabiltzea ahal bezainbat osagai kontuan hartzeko (lehengaien erauztea, fabrikazioa, garraioa, erabilpen-kostua, suntsitze-kostua, ...);
- **I EKINTZA:** fitxa metodologikoak formalizatzea.

- 2024 - 2026**
- Laguntza saio kopurua;
- Kostu osoaren analisia egiten duten merkatuen kopurua;
- Finantza-irabazien analisia.

16. HELBURUA:

ZERBITZU-ESKaintzen KALITATEA eta EGIKARITzea SEGURTATzea

- **16.1 ITU-HELBURUA**
Euskal Elkargoaren merkatu estrategikoen* gauzapenaren kalitatea une oro segurtatzea.
- **16.2 ITU-HELBURUA**
Euskal Elkargoaren merkatu estrategikoen* gauzapenaren jarraikortasuna segurtatzea.
- **16.3 ITU-HELBURUA**
Esleipendunen eraginkortasuna ebaluatzeko esparru baten proposatzea (merkatu estrategikoak ez diren merkatuentzat).

- **J EKINTZA:** fitxa metodologikoak formalizatzea.
- **K EKINTZA:** hobekuntza helburuak esleipendunarekin batera diseinatzea eta jarraitzea, merkatu estrategikoei irauten duten denbora osoan, urteroko jarraipen batekin.
- **L EKINTZA:** merkatu estrategikoei dagokienez, esleipendunei galdegitea arriskuak ebaluatzea eta zerbitzuen segurtatzea Jardueraren Jarraiketasun Plan (JJP)* baten bidez.
- **m EKINTZA:** eraginkortasunaren gidaketa sistematizatzeke tresnak proposatzea.

- 2024 - 2026**
- Negoziazio fasea duten merkatuen kopurua;
- Finantza-irabazien analisia.
- 2024 - 2026**
- Euskal Elkargoaren merkatu estrategikoen mapa;
- Etengabeko hobekuntza helburuak dituzten merkatu estrategikoen %a.
- 2024 - 2026**
- Euskal Elkargoaren merkatu estrategikoen mapa;
- Arriskuen ebaluazioa eta JJP duten merkatu estrategikoen %a.
- 2024 - 2026**
- Gidaritza oinarria
- Eraginkortasuna jarraitzeko batzorde bilkura kopurua

5 ARDATZEN SINTESIA



ZEHARKAKOIA



TRANSIZIO EKOLOGIKOIA



OSASUNA



GIZARTEA eta GIZARTE EKINTZA



ekonomia

NORABIDE NAGUSIAK (HELBURUEN HURBILKETA LABURTUA)

Euskal Elkargoaren erosketa gastuen egituratzea.

Arlokako erreferenteen erosketa sarea indarrean ezartzea eta koordinatzea deialdiak plazaratu eta merkatuen jarraipena egiteko.

Euskal Elkargoaren GEEASERen partekatzea eta nork bere egitea.

Euskal Elkargoaren erosketa arduratsuen eraginkortasunaren ebaluazioa (GEEASERen baitan).

PALANKA NAGUSIAK (EKINTZEN HURBILKETA LABURTUA)

➤ Euskal Elkargoaren erosketen sendotzeko eta kalifikatzeko ezinbestekoa den barne-nomenklatura derrigorrez erabiltzea (erosketen mapa: erosketa mota bakoitzari dagokion zenbatekoa eta zein enpresentzat).

➤ Sarearen dinamizatzea gako-informazioen trukaketa jarraikia eta eraginkorra bermatzeko, baita jokabide egokiak, eta abar...

➤ Urraspidearen aurkeztea eta GEEASERen gauzatzen laguntzea, eta Euskal Elkargo barneko eta herriekiko sinergien identifikatzea.

➤ Ebaluazio erreferentzial baten formalizatzea, nahi luketen herriek ere baliatzeko gisan.

Ingurumen irizpideen kultura txertatzea.

Produktuen bizi-zikloaz kezkatzen diren kontsumo-moduak sustatzea.

Eraikuntza eta obra publikoen arloko energia-trantsizioa bizkortzea, eraikuntza eta eraberritze jasagarriak eginez.

➤ Sareak arlokako erreferenteak hobeki ezagutzea, formakuntza eta informazio bilkuren bidez.

- Produktuen jatorriaren irizpidea: berrerabilpenetik datozen gaien erostea lehenetsiz (AGEC* legea segituz), baita bertako erosketak (zirkuitu laburrak) besteak beste hornitzaileak eukoz ordaintzeko aukerarekin.

➤ - Produktuen fabrikazio eta erabileraren irizpidea: produktuen iraunkortasunaz, bioaniztasunaren eta natur baliabideen zaintzeaz kezkatzen diren enpresak lehenetsiz.

- Produktuen bizi-bukaeraren irizpidea: ekonomia zirkularra eta berrerabilpena lehenetsiz (adibidez, lurraldeko sail desberdinekin arituz eraikuntza eta obra publikoetako hondakinen kudeaketan, edo elikadura-xahutzea borrokatuz).

➤ - Karbono inpaktu txikiko materialen sustapena (kalamua, zura, jatorri biologikoko materialak,...) eraikuntza eta eraberritze merkatuentzat.

- Eraikin berrientzat estandar «pasiboa» exigitzea, eta eraberritze lanentzat KTE* Effinergie Rénovation egiaztagiria.

- Energia berriztagarrien hornikuntzaren proportzioa emendatzea.

Elikadura osasuntsu baten hautatzea (bereziki haurrentzako jantoki kolektiboetan).

Publikoari (bereziki haurrei) irekiak diren egituretan barneko airearen kalitatea hobetzen parte hartzea, eta hormona-asaldatzaileen murrizketa.

Atmosfera-kutsaduraren kontrako borrokan parte hartzea.

➤ Frantziako EGALIM legea segituz, produktuak eta hornitzaileak indexatzea eta kalitatezko hornikuntza dispositibo baten ezartzea kalitatezko.

➤ Hornidurak indexatzea (garbiketa produktuak, xataurrak, ...) SAFE-LI gomendioen eta RECOCRECHE erreferentzialaren arabera.

➤ - Merkatu batzuetan banaketa / garraio baldintzapenak txertatzea.
- Euskal Elkargoaren ibilgailuen berdetze etengabea.

Gizarte irizpideen kultura txertatzea.

Enplegutik urrunduak diren gizarteratzea jarduera ekonomikoaren bidez, eta elbarritasun eta babes sektoreko egituretara jotzea.

Diskriminazioen kontrako borroka eta genero berdintasunaren sustatzea.

➤ Sareak arlokako erreferenteak hobeki ezagutzea, formakuntza eta informazio bilkuren bidez.

➤ Euskal Elkargoaren merkatuen programazioa gizarteratze-eragileekin partekatzea (erraztailea, INAE, Ipar Euskal Herriko tokiko misioa) merkatu bakoitzean legozkeen gizarteratze aukerak identifikatzeko (gizarteratze orduak, merkatu erreserbatuak,...).

➤ - Merkatuetako legezko betebeharren oroitaratzea.
- Genero berdintasunaren alde merkatuetan bete behar diren baldintzak (adibidez, obra guneeetan aldagela bereziak ezartzea).

Ekonomia-eragileen ezagutza indartzea (mugaz gaindikoak barne) Euskal Elkargoaren deialdietarako sarbidea errazteko, "beharrezko beharren" formalizatzen laguntzeko eta berrikuntza (teknikoa, ingurumenekoa eta soziala) indartzeko.

Erosketen gako-informazioak ekonomia-eragileekin partekatzea.

Merkatuen eraginkortasuna hobetzea eta zerbitzuen gauzatzearen kalitatea segurtatzea.

➤ Sourcing-erako laguntza, sare eta sindikatu profesionalekiko trukaketen garatzea, bereziki Ekonomia Eraldatzailearekin eta mugaz gaindi, ETEak laguntzea deialdietara aurkez daitezzen,...

➤ Euskal Elkargoaren urteroko merkatuen programazioaren partekatzea ekonomia-eragileekin.

➤ Eskaintzak kostu osoan aztertzea, merkatu estrategikoen arriskuen aztertzea, merkatuen eta hornitzaileen ebaluazio eta jarraipen esparru baten formalizatzea, ...

HIZTEGIA

Geease eta haren artikulatzea

HELBURU OROKORRAK
Euskal Elkargoaren erosketa estrategiaren norabide nagusiak.

HELBURU ZEHATZAK
Euskal Elkargoaren erosketa strategiaren helburua zehatzak eta operazionalak.

EKINTZA ADIBIDEAK
Itu-helburuak lortzeko ekintza konkretuak.

ARRAKASTA-ADIERAZLEAK Ekintzen eraginkortasuna eta erosketa strategiaren erabakien ebaluatzeak adierazleak.

Iturria: Guide méthodologique France Urbaine: <https://franceurbaine.org/publications/guide-methodologique-sur-la-mise-en-oeuvre-et-le-suivi-des-spaces/>.

AKRONIMOAK

3AR: Akitania-Berriko Erosketa Arduratsuen Elkartea

ADEME: Ingurumen- eta Energia-Kudeaketaren Agentzia (Agence De l'Environnement et de la Maîtrise de l'Energie).

AGAZ: Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa.

EUSKAL ELKARGOIA: Euskal Hirigune Elkargoa

MIG: Euskal Elkargoak darabilen kontularitza eta finantza kudeaketarako informazio sistema.

LOG: Lanbide eta Ofiziale Ganbera.

ZNO: Zuzendaritza Nagusi Ordea

FFB: Frantziako Eraikuntza Federazioa.

LKAEP: Lurraldeko Klima-Aire-Energia Plana.

PNAD: Frantziako Erosketa publiko Jasangarriren Plan Nazionala. Garapen Jasangarriaren Batzorde Nagusiak (CGDD) du PNAD-a kudeatzen.

AFZ: Administrazio eta Finantza Zerbitzua

GEEASE: Gizarte eta Ekonomia mailan Erosketa Arduratsuen Sustapenerako Eskema.

VL/VU, PL: Ibilgailu arinak/ profesionalak, ibilgailu astunak.

Gaikako definizio teknikoak

ZEHARKAKO ARDATZA BARNE NOMENKLATURA

Ezinbesteko tresna da Euskal Elkargoak egin dituen erosketen balioa egiaztatzeko eta Frantziako eskaera publikoaren kodeak finkatu atalaseei begira beharren homogeneotasuna zehazteko.

Iturria: Direction des Achats de l'Etat (DAE): <https://www.economie.gouv.fr/dae> - <https://www.marche-public.fr/>

EROSKETEN MAPA

Segmentu, arlo eta hornitzaile bakoitzeko kontsumoen argazkia. Kartaren azterketari esker garrantzia handiko familiak,

Iturria: <https://www.code-commande-publique.com/>

LEHENTASUNEZKO ZEHARKAKO MERKATUAK

Programazioa egiterakoan, hainbat arloren beharrei loturiko eta lehentasunezko bezala identifikatu diren merkatuak.

ARLOKAKO ERREFERENTEAK
Euskal Elkargoko ZNO bakoitzean identifikatu diren langileen sarea eta merkatuak plazaratu, ebaluatu eta jarraitu ditzaketanak.

EKOLOGIA-TRANTSIZIOAREN ARDATZA

INGURUMEN IRIZPIDEAK

“Ingurumen irizpidetzat joko da erosketa burutzerakoan ingurumen dimentsioa kontuan hartzea. Ingurumen dimentsioa adiera zabalenean ulertu behar da: adibidez, baliabideen erauzketa murriztea, produktuen osaketa eta besteak beste produktuen izaera ekologiko / kutsakor / toxiko / berrerabilgarri / birziklatu / eraberritu / birziklagarritasuna. Honakoak ere sartuko dira talde horretan: energia aurrezpenak, hondakinen ekoizpen-prebentzioa eta horien balioztatzea, zerbitzu eskaintzen egikaritze baldintzei aplikatuko diren ingurumen-praktikak hala nola berotegi eragineko gas-isurpenen murriztea, ingurumena eta bioaniztasuna babesteko eraginkortasuna, oihanen suntsitzearen kontrako borroka, kutsadurak, elikadura eta energia xahutzea, energia berriztagarrien garapena eta abar, guzi hori eskatuko den zerbitzuari loturik.

Beharraren definizioan oinarri hartuz, zeinak garapen jasangarriaren helburuak kontuan izan behar baititu, eskaera publikoko kontratu batean ingurumen irizpideak txerta daitezke hainbat lege-palankaren bitartez: - **Kontratuaren ezaugarri eta exigentzietan** ingurumen dimentsioa duten administrazio- eta teknika-klausula gisa (xede, egikaritze baldintzak, berezitasun teknikoak); - **Deialdian**, esleipenerako ingurumen irizpide bat ezarriz. Honela, ekonomia-eragileek euren proposamenetan ingurumenaren alde egiten dutena balioan ezar dezakete.

Gainera, ingurumen irizpideak kontuan hartzeko beste palanka batzuk baliatzen dira, hala nola bariante bat.”

Iturria: PNAD 2022-2025 (P 7 et 8)

EBH

(Engaiamendu Boluntarioko Hitzarmena) Profesional pribatu boluntarioek izenpetzen duten hitzarmena, non adierazten baitute hitzarmenean finkatu ekintzak burutuko dituztela.

Iturria: <https://www.routesdefrance.com/les-actions-de-la-profession/developpement-durable/convention-dengagement-volontaire/>

AGEC LEGEA

Xahutzearen kontrako eta ekonomia zirkularraren aldeko Frantziako legea: legearen xedea da ekoizpen eta kontsumo ereduaren aldaketak bizkorrago egitea, hondakinen kopurua murrizteko, natur baliabideak, bioaniztasuna eta klima zaintzeko.

Iturria: Trantsizio ekologikoaren eta lurraldeen kohesioaren Ministerioa

EUSKAL ELKARGOKO EKONOMIA ERALDATZAILEAREN BIDE-ORRIA

Euskal Elkargoko ekonomia eraldatzailearen bide-orria.

Iturria: DGA Economie

KARBONO ERAGIN TXIKIKO MATERIALAK

Material horien osaketak, fabrikazioak eta erabilerak karbono aztarna txikia dute eta ingurumen eragin ahula.

ESTANDAR PASIBOA

(eraikuntzarako) Kontsumo oso txikiko eraikuntzari dagokien erreferentziala.

Eraikin pasiboa da, eraikinaren barnean isurtzen den beroa (bizidunak eta tresna elektrikoak) eta kanpotik datorrena (eguzkia) aski izatea berogailu beharrak betetzeko. Bizidunak barnean dituen eraikin batek, bizitzeko atsegina izateko, ez ditu konpensatu behar bero-galerak berogailuak erabiliz. Halaber, eraikin pasibo batean, ongizate termikoa ez da berogailu sistema arruntetik heldu (zeina gehienetan bero-galerak konpensatzeko ezartzen baita, eraikuntza eta diseinu akatsengatik) baizik eta soilik aireztatze mekaniko kontrolatu bidez sartzen den airea berotuz.

Eraikinaren berotze indarrak ez du 10W/m² gainditu behar.

*Iturria: Eraikuntza Pasiboaren Frantziako Federazioa: <https://fedepassif.fr/definition-concept/>
La maison passive : <https://www.lamaisonpassive.fr/la-construction-passive/quest-ce-que-la-construction-passive/>*

KTE EGIAZTAGIRIA

Kontsumo Txikiko Eraikinaren egiaztagiria eraginkortasun energetiko altuko eraikinei aitortzen zaie. Energia-Kontsumo Txikiko Eraikintzat (KTE), hartuko da, berogintzarako eta klimatizaziorako behar duen energia ohiko etxebizitzena baino nabarmen txikiagoa denean.

KTE egiaztagiria eraikinaren adinaren arabera: jadanik existitzen diren eraikinek etxebizitza arruntekiko %50 kontsumo gutxiago izan behar dute. Urteko kontsumo helburua 80 kWh/m²-koa da. (kWh: kilowatt energia primarioko oren bakoitzeko, 2005 Arau Termikoak finkatuaren arabera).

BERO SAREAK

Tokiko erakundeek bero sareak sortzen dituzte beren lurraldean eraikin publiko eta pribatuak berotegi kolektibo baten bidez berotzeko. Honela, bereziki hiri eremuetan eskuratzeko edo ustiatzeko zailak diren energia iturriak erabiltzen

dituzte (egurra, geotermia, berreskuratutako beroa...).

Iturria: Trantsizio ekologikoaren eta lurraldeen kohesioaren Ministerioa

KWC / MWC

Kilowatt-piko / Mégawatt-piko: fotovoltaiakoari dagokien berezko potentzia unitatea. Piko-potentzia da zentral fotovoltaiako batek eguzki-argi jakin batekin ekoiztu dezakeen potentzia gehiena. (1 MW = 1 000 kW = 1 000 000 W).

OSASUNAREN ARDATZA

IPAR EUSKAL HERRIKO OSASUN KONTRATUA (OK)

Akitania-Berria eskualdeko Osasun Agentziaren eta tokiko erakundearen arteko lankidetzarako tresna, eskualdeko politika eta lurraldearen osasun beharren arteko koherentzia lortzeko xedea duena.

Iturria: <https://www.communaute-paysbasque.fr/eu/vivre-ici/etre-accompagne-la-sante/contrat-local-de-sante>

SAFE-LI PROGRAMA

SAFE-Li, Ekonomia Eraldatzaileko enpresa 2021eko martxoan eratu zen, erakundeak mundu ez hain toxiko batera eramateko, eguneroko praktiketan ingurumen-osasuneko jokagaiak kontuan hartuz.

SAFE-Li programak tokiko erakunde eta egiturei aterabide konkretuak eskaintzen dizkie beren publikoak kutsadura iturri kezkarrietatik ahal bezainbat babesteko

Aldaketa berezituarentzako gidaritza metodologia: sentsibilizatzea, aztertzea, federatzea, saiatzeta, loturak egitea.

Iturria: SAFE-LI : <https://www.safe-li.fr/>

RECOCRECHE ERREFERENTZIALA

Tresna honen bidez, erosle publikoek ingurumen-osasuneko jokagaiak txerta ditzakete haur gazteak errezibitzen dituzten egoitzetarako beren eskaera edo merkatu publikoetan.

Zehazkiago, RECOCRECHE-k lehen haurtzaroko egiturak kudeatzen dituzten erakundeak laguntzen ditu ingurumen-osasuna zaintzen duten praktikak ezartzera, tresna-kutxa praktikokoak beren esku ezarriz aldaketarako bidean laguntza eskainiz.

Iturria: RECOCRECHE : <https://www.recocreches.fr/>

LEP

Lurraldeko Elikadura Proiektua. Proiektuaren helburua da laborantza eta elikadura lurraldean birkokatzea, horretarako laborarien instalazioa eta zirkuitu laburrak eta bertako mozkinak lehenetsiz jantokietan.

Iturria: Laborantzaren eta Elikadura-Burujabetzaren Ministerioa

LOM LEGEA

Mugikortasunaren Norabide Legea (Loi d'orientation des mobilités). 2019ko abenduaren 24an onartu zen LOM legearen 76. artikuluaen arabera, lurralde erakundeek urtean eraberritzen dituzten ibilgailuen %50 isurpen baxuak izan behar dute

Iturria: Laborantzaren eta Elikadura-Burujabetzaren Ministerioa

GIZARTE ETA GIZARTE-EKINTZAREN ARDATZA

GIZARTE IRIZPIDEAK

“Gizarte irizpidetzat joko da erosketa burutzerakoan gizarte dimentsioa kontuan hartzea.

Gizarte dimentsioa adiera zabalenean

ulertu behar da: adibidez, enplegutik urrundak eta elbarritasun egoeran diren publikoen gizarteratzea diskriminazioen kontrako borroka, besteak beste genero berdintasunaren sustapena, exigentzia etiko edo justuen errespetua (giza eskubideen errespetua), langileen babesaren eta formakuntzaren eraginkortasuna, guzi hori eskatu den zerbitzuari loturik.

Gizarte irizpideak eskaera publikoko kontratu batean hainbat palanken bidez txerta daitezke:

- **Kontratuaren ezaugarri eta exigentzietan** gizarte dimentsioa duten administrazio- eta teknika-klausula gisa (xede, egikaritze baldintzak, berezitasun teknikoak);

- **Esleipen baldintzetan**, non zehaztuko baita kontratua gauzatuko duten ekonomia-eragileek nagusiki langile elbarrituak edo baztertuak enplegatuko dituztela, edo ekonomia eraldatzaileko enpresek burutuko dutela;

- **Deialdian**, esleipenerako gizarte irizpide bat ezarriz. Honela, ekonomia-eragileek euren proposamenetan gizarteratearen alde egiten dutena balioan ezar dezakete.

Gainera, gizarte irizpideak kontuan hartzeko beste palanka batzuk baliatzen daitezke, hala nola bariante bat.”

Iturria: PNAD 2022-2025 (P. 9)

EKONOMIA ERALDATZAILEA

Ekonomia eraldatzaile kontzeptuak elkartzarekin eta baliagarritasun sozialean oinarritzen diren barne funtzionamendua eta jarduerak dituzten kooperatiba, mutua, elkarte edo fundazio motako enpresak izendatzen ditu. Enpresa hauek kudeaketa modu demokratiko eta partehartzaileak dituzte.

Iturria: Ekonomia, finantza eta burujabetza industrial eta numerikoaren Ministerioa

ERRAZTAILEA

“Gizarte klausularen erraztaileak funtsezko eginkizuna du gizarte klausularen dispositiboan. Gizarteratzea eta enplegua sustatzeko xedearekin, merkatu publikoetan gizarte klausulak bultzatu behar ditu eta horien ezartzea lagundu eta jarraitu behar du.

TGLPT

Tokiko Gizarteratze eta Lanbideratze Plana.

Iturria: Lanaren, Enplegu osoaren eta Gizarteratearen Ministerioa

EJGE

Ekonomia-Jarduera bidezko Gizarteratze Egitura.

Iturria: Lanaren, Enplegu osoaren eta Gizarteratearen Ministerioa

LLE

Lanaren bidezko Laguntza zerbitzuko Egitura.

Iturria: Lanaren, Enplegu osoaren eta Gizarteratearen Ministerioa

ekonomiaren ardatza

HEMEN

Ekonomia eraldatzaileko elkarte honen xedea da Ipar Euskal Herri barnealdearen eta kostaldearen arteko loturak indartzea baita Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean.

Iturria: <http://hemeriherrikoa.org/>

DLA

Frantziako Ekonomia Eraldatzaileko Tokiko Laguntza Dispositiboa. DLAk gizarte batasuneko egiturak urririk laguntzen ditu beren enpleguen eta proiektuen garatzen.

Iturria: <https://www.info-dla.fr/>

3EG

Ekonomia Eraldatzailearen Eskualdeko Ganbera.

ESKAERA PUBLIKOAREN AHOZKO HANDIA

FEFko profesionalen eta lurralde erakundearen arteko topaketa eraikuntza eta obra publikoaren alorrean proiektu arduratsuek aurkezteko. HHEA/RFA “Hornitzaileekiko Harremanak eta Erosketa Arduratsuek” erreferentziala. Beren hornitzaileekiko harreman iraunkorrak eta orekatuak frogatu dituzten Frantses estatuko enpresak edo erakundeak saritzen ditu. 2010ean Enpresen bitartekariak eta CNAk abiatu urraspideari segitzen dio, besteak beste Hornitzaileekiko Harremanen eta Erosketa Arduratsuen Gutunaren bidez.

Iturria: Ekonomia, finantza eta burujabetza industrial eta numerikoaren Ministerioa

KOSTU OSOAREN ANALISIA

Kostu oso baten xedea da ondasun edo zerbitzu batek bere bizi ziklo osoan izanen duen kostua baloratzea, honakoak kontuan hartuz:

- kostu zuzenak (adibidez, ondasunaren prezioa eta garraioa);

- zeharkako kostuak (baldintza-agiriaren ez errespetatzea, banaketa berantiarra, hornikuntza katean gerta daitezkeen etenak, mantenua, hondakinen kudeaketa, eta abar);

- externalitateak (adibidez CO2 isurketak). Usu, kostu osoen metodoak ezkutuko kostuak agerian ezartzen ditu. Kostu horiek egiazkoak dira enpresarentzat, baina erosketa prezioan ez dira kontuan hartzen. Horregatik prezio merkeenean erostea ez da baitezpada beti aterabide merkeena.

MERKATU ESTRATEGIKOAK

Arrisku probabilitatearengatik edo larritasunarengatik finantza edo ekintza arrisku handia duten merkatuak.

JARDUERAREN JARRAIKITASUN PLANA (JJP)

Jardueraren Jarraitutasun Planaren xedea da aurreikusi den estrategia eta xedepen guztiak zehaztea, ezbehar baten ondorioz erakunde batek bere jarduera berriz hasteko bermeak emateko.

Iturria: Ekonomia, finantza eta burujabetza industrial eta numerikoaren Ministerioa



**pays
Basque
euskal
HERRIA**

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION